



ARRAZTALO

2023ko memoria

2024ko urtarilaren 3a

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	2023 URTEKO EKINTZEN AZALPENA	3
2.1	Lan eta gizarte integrazioa baratzetan	3
2.2	Enplegu Zentro Berezia (EZB)	6
2.3	Baratzak eta kontsumo taldea	6
2.4	Ikastetxeak eta baratzetara bisitak	9
2.5	Aldurarekin elkarlana	10
3	ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK	10
4	DIRU-KONTUAK	12
4.1	Balantzea	12

1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2023 urtean egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta orain arteko emaitzak zehazten dira. Gainera, diru-kontuen azalpen zehatza ematen da.

2 2023 URTEKO EKINTZEN AZALPENA

2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2.1.2 2023ko ibilbidea

Lantalde egonkorra

Lantalde egonkorrean gaur egun buruko gaixotasuna duten lau pertsona ari dira lanean. Horietatik hiruk urte askotako esperientzia dute Arraztalon eta laugarrenak hiru urte egin ditu. Lan dinamika egokia da, baina aurreko txostenetan aipatu den moduan, gizarte hezkuntza ikuspegitik langileen integrazioan lagunduko duen pertsona baten beharra dago. Enplegu Zentro Bereziak hori ahalbidetuko du eta eskaera egin bitartean, dirulaguntza ezberdinak eskatu dira honetara bideratzeko. Besteak beste, Fagor Herrigintza deialdira proiektu pilotu bat martxan jartzeko dirulaguntza eskatu da, baina ez da lortu. Caixak 2023an eman duen dirulaguntza gehigarria ohiko gastuetara bideratzea erabaki da.

Bestalde, aipatu behar da azkeneko urtetan langileen soldatak eguneratu direla. Langile Arteko Soldata Minimoaren eguneraketarengatik, baratzako peoien soldata likidoa %27,12 igo da 2020 eta 2023 urteen artean. Horrez gain, koordinatzailearen soldata eguneratu da, %10eko igoerarekin. Kasu honetan soldata eguneratu gabe zegoen 2010etik. Honek langilera gastuen %27ko igoera suposatu. Gastu hauei aurre egiteko, diru iturri berriak bilatu dira, bai merkataritzan baita dirulaguntzetan ere.

Lanbideren Enplegu Plana

2023 urteko lehenengo sei hilabetetan, Lanbideren 2022 urteko Enplegu Planeko langileak izan dira lanean Arraztaloren ustiatégian. Lantalde finkoarekin batera aritu dira lanean 3 kontratazio berriak. Aurreko urtetako kontratazioekin alderatuz, bat gutxiago egin da. Honen arrazoi nagusiak bi izan dira: kontratazioak egiteko inguruko erakundeekin koordinaziorako zailtasunak eta hautagai falta. 4 langilerentzako lana badagoen arren, 3 langile bakarrik hartzeak abantailak ere badituela ikusi da. 4 pertsona hartuta lantalde osoa 10ekoa da eta ez dira denak furgonetan batera sartzen. Ondorioz, bidaiak bikoiztu behar izaten dira. 3 langilerekin ez ordea.

Pertsona hauen hautaketan, Erretereriako Osasun Mentaleko Zentroak eta herrietako gizarte zerbitzuek parte hartu dute, senideekin eta erabiltzaileekin elkarriketak eginez eta hautagaiak proposatuz. Guztira, hiru pertsona kontratatu dira, 20 eta 40 urte arteko bi gizonetako eta emakumezko bat, hain zuzen ere. Pasaiaiko bi eta Erretereriako bat. Horietatik batek aurrez Arraztalon lan egin zuen.

Langileen kontratazioa 2022ko abenduan egin zen eta 2023ko urtarrilean aurrez baratzean lan egin ez zuten langileekin formazio jarduerak antolatu ziren. Horretarako, Arraztalo Elkarteko baratzeetan lanean hasi ziren, dagoeneko martxan zegoen lantalde batean integraturik. Lantaldearen arduradunak, pertsona bakoitzaren profila aztertu eta beharrezko formakuntza eta egokitzapen ekintzak gauzatu zituen, langileen egokitzapena ziurtatzeko. Besteak beste, nekazaritza tresnerian formakuntza, baratze lanen kudeaketan formakuntza eta lan arriskuen prebentzioan formakuntza jaso zituzten. Formazio fase honetan, langile bakoitzaren esperientzia eta gaitasunak aztertu ziren, ustiapenean dauden ataza ezberdinetatik bakoitzari hobekien egokitzen zitzaizkionak aukeratzeko.

2023ko otsailetik 2023ko ekainera, kontratatu berriak Arraztaloko lantaldean integraturik egon dira, nekazaritza lanetan, lanaldi arrunteko fasean. Hilabete hauetan, langileekin eta senideekin egoeraren jarraipena egin da, beharrezkoa izan den kasuetan lan jarduerak egokituz, bai lan motari dagokionean, lantaldeari dagokionean edo ordutegiei dagokionean.

Jarraian langile bakoitzaren bilakaera laburtzen da:

- Lehenengo langilearen kasuan, osasun egoera nahiko ezegonkorra izan du kontratazioak iraun duen bitartean. Lehenengo hiru hilabetetan ongi egokitu zen lanera eta bai lankideek baita programaren koordinatzaileak bere lana ongi baloratu zuten. Martxotik aurrera berriz, antsietate arazoak eduki zituen langile honek. Bajak eta altak hartzen joan zen, ekaina hasieran programa uztea erabaki zuen arte. Kontratua bukatu baino hiru aste lehenago bolondres etetea erabaki zuen. Hori gertatu bitartean, Arraztaloko arduradunek bitan lanera bueltatzea lortu zuten, baina epe motzean berriz

ere baja hartu du. Errenteriako Osasun Mentaleko Zentrotik ere osasun egoera nahiko ezegonkorra zela komunikatu zitzaion Arraztalori eta bertako profesionalek eta langileak lana eteteko erabakia batera hartu zuten. Gaur egun, urte batetik bestera langileak berriz kontratatzeke ez dago mugarik, beraz hautagai ona izan daiteke hurrengo urterako.

- Bigarren langilearen kasuan, egokitapena ona izan da eta lanean ongi ibili da maiatza arte. Langileak berak aipatuta, kontratazioaren bukaera zetorrela ikusirik, motibazioa galdu zuen eta mediku baja hartzea erabaki zuen kontratua bukatu arte.
- Hirugarren langilearen kasuan, aurrez Arraztalon lanean aritua zen. Horregatik egokitapena azkarra izan da eta lanean oso ongi aritu da. Kontratuan zehar gora beherak izan ditu drogen kontsumoarekin eta etxean gatazka ugari izan dituela aipatu du. Falta puntualak kenduta, kontratu guztia bete zuen ekaina arte. Ekaina erdian baja hartu zuen kontratua bukatu arte.
- Programa ekainean bukatu zen eta txosten hau idazteko momentuan oraindik ez da baloraziorik egin bertan parte hartu duten erakundeekin.

Etorkizuneko programei begira, honako hausnarketa egin da:

- Urtetik urtera, osasun egoera ezegonkorragoa duten pertsonak topatzen ditugu. Ondorioz, egoera berri hauetara egokitzeko neurriak hartu beharko ditugu. Horien artean daude senide, langile, gizarte zerbitzu eta Osakidetzaen arteko koordinazioa indartzea.
- Aurreko puntuarekin lotuta, koordinazio dinamika martxan jarri beharra dago programak irauten duen bitartean suertatzen diren gorabeherak kudeatzeko.
- Arraztalo Oihartzunen kokatua egonik, esfortzu berezia egin beharko genuke bertako langileak erakartzeko.
- 3 langile bakarrik hartzeak logistika errazten du.

2022ko programatik ateratako ondorioak kontuan hartuz, udazkenean 2023ko programako koordinazio dinamika hasi zen. Errenteriako Osasun Mentaleko eta Oihartzungo Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin batera hautagaiak proposatu eta lan dinamika zehazteko bilera bat egin zen. Bilera horretan, hautagaiek baratzara bisita bat egitea proposatu zen, aurrez proiektua eta lanpostuaren ezaugarriak ezagutzeko. Azaroan egin zen bisita hori eta bertan lanpostuan interesa azaldu zuten pertsonak, lan eskaintza ofizialean izena eman zuten.

Hautagaien ezaugarriak kontuan harturik, abenduan kontratuak egin ziren.

2024ari begira Arraztalotik jarraipen dinamika bat egitea proposatuko da, kontratazio epearen erdialdean eta bukaeran jarraipen bilera bat eginez.

2.2 Enplegu Zentro Berezia (EZB)

2.2.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

2.2.2 2023rako helburuak

- Udalean jarduera baimena lortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren eskaera egitea.

2.2.3 2023ko ibilbidea

2023ko lanaren zati handiena jarduera baimena lortzea izaten ari da. Enplegu Zentro Bereziaren erregistroa egiteko, Lanbidek jarduera baimena edukitzea eskatzen du.

Printzipioz, baratza eta lursailen jarduera baimena lortzeko arazorik ez dago. Arraguan erabiltzen den biltegian azaldu dira arazo gehien. Ur zikinekin, su itzalgailuekin eta argiteriarekin lotuta eskakizunak egin ditu udalak jarduera baimena eskatzerako garaian. Eraikina udalarena da ordea eta hirigintza sailarekin lan hauek egiteko tramiteak hasi dira.

2023ko abenduan behar diren baimenak oraindik lortu gabe daude, beraz Enplegu Zentro Bereziaren eskaera egiteko oztoporik handiena izaten jarraitzen du.

2.3 Baratzak eta kontsumo taldea

2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoian-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konpromezua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2.3.2 2023ko helburuak

2023rako honako helburuak zehaztu dira:

- Kontsumo taldea sendotzen jarraitzea. Komunikazio kanpainak egiten jarraitu, kide berriak erakartzeko.

- Labore denda eta Ikastolako sukaldeak hornitzeko barazkien ekoizpena ugartzea.
- Inguruko denda txikiak hornitzen jarraitzea. Orain arte modu puntualean egiten da. Aurrera begira denda txikiak iraunkortasunez hornitzea izango litzateke helburua.
- Bezero berriak lortzea.

2.3.3 2023ko ibilbidea

Baratzak

2023an Arraztalok lau baratza (19000 m²) eta bi sagasti (12000 m²) kudeatzen jarraitzen du. Gaur egun daukagun azpiegitura nahiko egonkortuta dagoela esan daiteke. 2023ko berrikuntza nagusia sagarretarako lursailekin egin den trukaketa bat da. Udalak Arraztalori Carrefour gainera agroaldean utzita zion sagasti baten zesia etetea eskatu da. Bertako bizilagunekin arazoak izan dira azkeneko urtetan, baimenik gabe animaliak sartzen zituztelako sailean. Horren ondorioz, udalari zesia eten eta beste sail bat uzteko eskatu zaio. Zehazki, [Gurutzeko Pikokarate esparruan dagoen sagasti bat kudeatuko aurrerantzean Arraztalok.](#)



Kontsumo taldea

Kontsumo taldeari dagokionean, 2023an partaide kopurua igotzea lortu da. Gaur egun 30 bazkide daude. Urtean zehar kanpaina ezberdinak egiten dira kideak erakartzeko:

- Etxez etxe eta enpresetan esku-orrien banaketa.



- Email bidezko kanpainak.
- Ikastetxeen bidezko kanpainak.
- Iragarkiak prentsan. Oarsoaldeako Hitzan lehen saiakera bat egin zen ekainean online iragarkiak jarritz. Udazkenean beste saiakera bat egingo da.

Horrez gain, urtean zehar Irungo Bentas auzoan bertako bizilagun elkarteari aurkezpen bat egiteko aukera sortu da. Bertako bizilagunen elkartearekin aurkezpena antolatzea atzeratu egin da baina urtarilean lanari berriz ekitea espero da.

Beste bezeroak

Merkataritza txikiari dagokionean, bezero nagusiak mantentzen dira: Haurtzaro Ikastolako jantokia eta Labore. Orokorrean, salmentak % 40 jaitsi dira hauekin. Urtearen azken zatian ahalegin berezia egingo da bezero hauen salmentak berreskuratzeko, baina zaila da, urtero barazketako plangintza egokitu arren, eskaerak ez baitira batere egonkorak.

HemenGuk ekimenaren baitan antolatu diren azokatan parte hartzen jarraitzen dugu eta gure produktuak zein kontsumo taldea bistaratzeko aukera izaten ari da.

2023an zehar Eroskiren online dendan ([‘Eroski Azoka’](#)) parte hartzen jarraitzen dugu, baina bertatik ez da ia salmentarik egin. Egitasmoa hau nahiko berria da eta oraindik ez dugu lortu salmenta esanguratsurik edukitzea. Online erosleak barazki saskiak hartzeko dinamikara ez daudela ohituta dirudi.

Azkenik, Errenteriako Udalak bertako ekoizleen merkatu berrian parte hartzeko lehiaketa ireki zuen. Lehiaketa horretan Arraztalori postu bat egokitu zaio eta asteen behin (asteazkenetan) jarriko da hori. Zuzeneko salmentaren apustuarekin jarraitzen dugu. Arraztaloko langile bat asteen behin Errenteriara joango da. Horrela, bi helburu betetzea espero da:

- Merkaturatze bide berriak zabaltzea eskualdean. Gure produktuak ezagutzera eman eta diru sarrera iturri berriak edukitzea proiektuak martxan jarraitu dezan.

- Langileei beste jarduera bat egiteko aukera ematea. Orain arte, bezeroekin harremana kontsumo taldeko banaketetara mugatu izan da. Azkeneko urtetan, langileak HemenGuk azoketan ere parte hartzen aritu dira. Hemendik aurrera, astean behin Erreterian postuaz arduratu eta bertako lanak egingo dituzte. Berain gizarteratze prozesuan beste pauso bat emanez.

Postua azaroan hasi zen jartzen eta oraingoz balorazioa positiboa da. Bertara joaten den langilea gustura dago eta pixkanaka jendea gu ezagutzen ari da.

2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2.4.2 2023rako helburuak

2023rako helburuak honakoak dira:

- Elizaldeko eta Haurtzaroko ikasleak baratzetara joaten direnerako, irakasleekin bisitak landu Arraztalo elkarteak burutzen duen lana azalduz. Horretarako irakasleei Arraztaloko langileek egiten duten lana azaldu behar zaie. Langilearen egunerokotasuna, langilearen prozesua, dituzten zailtasunak, izaten dituzten aurrerapenak eta abar.

2.4.3 2023ko ibilbidea

2023ko lehen seihilekoan, Arraztaloren baratzatan Haurtzaro Ikastolako HHko ikasleen bisita izan da. Beste urtetan Udalekuetako bisita ere izan den arren, aurten ez da horrelakorik antolatu.

Udazkenean, sagar bilketarekin batera, Elizalde Eskolako LHko ikasleen bisita izan da. Sagar denboraldian lan ugari izaten da sagastietan eta sagardoaren ekoizpenean hasierak pausoa zein den ezagutzeko aukera izan dute.

Elkartetik lanketa sakonago bat egin nahi den arren, denbora faltagatik ezin izan da ikastetxeekin baratzetako bisitaz gain beste ezer antolatu.

2.5 Aldurarekin elkarlana

2.5.1 Helburu orokorrak

- Eskualdean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen aldeko mugimendua bultzatzea.
- Eskualdeko mailako egitasmoak gauzatzea, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen alde.

2.5.2 2023ko ibilbidea

2023an zehar Arraztalo Aldurak eskatu duenean bere egitasmoetan laguntzen aritu da. Egitasmo horien artean daude Osasun Mentaleko Zentroko baratzak eta eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia.

Baratzaren kasuan, nahiz eta hasiera batean Arraztalok horien mantenua egiteko beharra planteatu zen, azkenean Osasun Mentaleko Zentroak berak kudeatuko du baratzak osotasunean.

3 ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurtan eskatu edo lortu dituen dirulaguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Egoera
Oiartzungo Udala	53.000,00 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Onartuta. % 100 kokratuta.
Kutxa Fundazioa	20.000 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Onartuta, % 75a kokratuta.
Foru Aldundia	2.409,28 €	Nekazaritza ekologikoaren laguntzak, 2023ko deialdia	Onartuta. % 100 kokratuta.
Foru Aldundia	8.760,31 €	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	Onartuta. % 100 kokratuta.
Lanbide	19.851,00 €	Enplegu Plana 2023	Onartuta. 2024an kokratuko da.
Caixa Fundazioa	10.000 €	Lan integrazio programan laguntzeko	Onartuta. %80a kokratuta.
Foru Aldundia	640 €	Informatika ekipamendua erosteko dirulaguntzak	Onartuta. % 100 kokratuta.
Oiartzungo Udala	1.563,38 €	Lehen sektoreko proiektuetarako laguntzak	Onartuta. Kokratu gabe.



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Con la colaboración de:



4 DIRU-KONTUAK

4.1 Balantzea

2023 SARRERAK	
Salmentak	
Kontsumo Taldea	18.425,00 €
Merkataritza	3.343,21 €
Dirulaguntzak	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	11.169,59 €
Eusko Jauriaritza	2.510,98 €
Bankuak	28.000,00 €
Maileguak	
Maileguak*	5.000,00 €
Beste	
Beste	0,00 €
Guztira	121.448,78 €

*Dirulaguntza ezberdinen kobrantza atzeratzeagatik, gastuei aurre egiteko bazkideek mailegatutako dirua.

2023 GASTUAK	
Giza Baliabideak	
Ordainduak	83.256,00 €
Gizarte Segurantzak	24.170,19 €
Joan-etorriak	168,48 €
Kanpoko zerbitzuak	
Aseguruak	1.984,06 €
Zerbitzu profesionalak	2.430,91 €
Hornidurak	
Baratza materialak	1.575,80 €
Landare eta haziak	2.722,81 €
Argindarra	59,54 €
Ura	256,43 €
Hondakinak	206,86 €
Amortizazioa, zergak eta finantza gastuak	
Amortizazioak*	5.000,00 €
Zergak	5.250,69 €
Finantza gastuak	119,12 €
Beste	
Beste gastuak	1.277,00 €
Inbertsioak	
	1.269,29 €
Guztira	129.747,18 €

BALANTZEA	
2023-01-01	24.962,87 €
Balantzea	-8.298,40 €
2023-12-31	16.664,47 €

Bezeroen zorrak	2.025,84 €
Hornitzaileekin zorrak	2.452,79 €